

Arrabioen gerra



Karel Čapek

Arrabioen gerra

Koro Navarro

Karel Čapek

Itzultzailea: Navarro Etxeberria, Koro

Bilduma: Literatura Unibertsala, 188

Formatua: 130 x 195 mm

Orrialdeak: 400

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2024-01-22

ISBN paperezko edizioa: 978-84-9109-910-9

Materia: Helduentzako literatura

Salmenta prezioa

20,00 €



Gizakiaren ondoan, oso maila altura heldu dira Čapeken arrabioak, haren kultura eta usadio asko bereganatuta. Itsusiak dira, baina ausartak eta langile amorratuak, eta itsasertzetako txokoetan bizi dira, marrazoetatik babesean. Van Toch kapitainak aurkitu zituen Indonesiako uharte urrun batean, jakin zuen munduak haien berri, eta liluratuta geratu zen. Baina gure musker xarmagarriak, gizakiaren esklabo bihurtuta, matxinatu egin dira. Izan ere, aurrera eginez beti, ikaragarri ugaltu eta zabaldu dira, inperialismoa eta nazionalismoa ezagutu dituzte, gero eta zati gehiago kentzen diote Lurrari: gizakia menderatuko ote dute? Imitatuko ote dute beren burua suntsitzeko bulkadan ere?

Arrabioen gerra zientzia fikzioko klasiko handi bat da. Bigarren Mundu Gerraren bezperan idatzia da, Txekoslovakian, eta, liburuaren ezaugarri nagusietako bat den umoreagatik ere, agerikoa da hondamenaren itzala. Zoritzarrez, ordea, ez du batere gaurkotasunik galdu, eta orain eta hemen ere irakurtzekoa da.

Karel Čapek

Karel Čapek (1890-1938) idazle, antzerkigile, kritikari eta kazetari txekiar bat izan zen. Zientzia fikzioagatik egin zen ezaguna, bereziki honako *Arrabioen gerra* (1936) eleberrirengatik eta *robot* hitza («lan gogorra») sortu zuelako *R.U.R.* (*Rossum's Universal Robots*, 1920) antzezlaneari: *R.U.R. Erroboten lantegia*. Gainera, esanahi politikoko lan asko idatzi zuen bere garaiko nahasmendu soziala landuz, eta gogor egin zuen Europan faxismoaren eta komunismoaren gorakadaren aurka. Literaturako Nobel sarirako izendatu bazuten ere, ez zioten inoiz eman.

Harenak dira, gainera, *Vec Makropolis* (Makropoulos afera, 1922), *Bilá nemoc* (Izurri zuria, 1937) eta *Matka* (Ama, 1938) dramak eta *Tovarna na absolutno* (Absolutuaren lantegia, 1922). Obra horiez gainera, bidaia liburuak ere idatzi zituen (Italiako gutunak, 1923; Ingalaterrako gutunak, 1924).

Berrogeita zortzi urte zituen Alemania naziak Txekoslovakia inbaditu zuenean, heriotza-zigorra zekarren Gestapok Karel Čapek antifaxista abertzale txekiarrentzat. Zorionez, hila zen ordurako, pneumoniaz.